

Marian Arin Arrieta

Madalena Mont Blanc-en

lau bide Euskal Herriko emakumeentzat

OHIKO bilakatu nahian bitxia eta salbuespena, Euskal Herriko emakumeek Alpeetako mendirik garaiena igo dute lau bide desberdinetatik. Kiro-lak eta errebindikazioak bat egin dute 4808ko altueran, 2006ko uztailaren 22an. Egun horretan, goizeko bederatzietan, irrintzi batek harritu du gailur zuria.

Arrandegiko kola emango zuen! –zioten trufaka sinesgor batzuek Chamonix-en. Aspaldiko partez ez baita bildu une berean hainbeste emakume batera Mont Blanc-eko tontorrean. **Marimendi** emakume-taldeak duela bederatzita hila-

bete jarri zuen abian berdintasunaren eta normaltasunaren tren: normaltasuna aisia planifikatzerakoan, normaltasuna hizkuntza hautuan, normaltasuna goi-mendietan ibiltzeko.

Euskara, emakume helduaren aisia eta mendizaletasuna uztartu dituzte ekintza horretan Nafarroako, Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko hemeretzi emakume mendizalek. Suitzako Saas Fee bailaran hiru laumilakotan aklimatatu ostean, Mont Blanc igo dute; batzuek Frantziatik abiatuta, beste batzuek Italiatik. Denek egin dute bat tontorrean, egun eta ordu berean. Konplitu egin da ametsa.

■ Egunsentiarekin batera, gora



MUY poco a poco va reconquistando la mujer los espacios sociales arrebatados por el hombre a lo largo de la historia. Por tortuoso y difícil camino, pero con la firmeza y garantía de su justa meta, en el mundo laboral, en la política, en la empresa... cada vez va resultándonos más normal la presencia de la mujer. Reivindicar esta presencia también en

el mundo del ocio y concretamente en la alta montaña, es una de las principales motivaciones que han impulsado a estas mujeres a organizarse y formar el grupo **Marimendi**. Otro reto claro y sencillo, ha sido vivir y compartir en euskera la iniciativa que han materializado. Así, estas mujeres maduras euskaldunes han logrado vivir la aventura de conquistar la cima de los

Alpes por cuatro itinerarios diferentes, para reunirse en la cima el día 22 de julio de 2006. El éxito de la iniciativa constituye sin duda un mérito deportivo envidiable en cuanto a gestión del grupo, forma física y preparación técnica, pero la experiencia personal vivida por cada una de ellas trasciende de modo especial el mundo del deporte y del excursionismo...



■ Lagginhorn, gora-behera ugari

■ ALDARRIAREN HAZIA EREITEN

Ekintza hau martxan jarri arte, ez zuten elkar ezagutzen taldeko emakumeek, ekimenak elkartu ditu eta mendiak adiskidetu. Eta proiektua garatzeko talde bat osatu dute: **Marimendi**.

Idazkitxo batek jarri zuen ekimena martxan 2005eko udazkenean: "Emakume gutxi ikusten da goi-mendian, ez dago proportziorik ibiltzea gustatzen zaigunarekin. Ez al genuke talde bat osatuko egoeraren aurpegi ustela erakusteko? Gauza izango ote gara hogeiko taldea osatu, plazara irten eta emakumearen lekua mendian aldarrikatzeko?"

Idazkia lagunei pasa, haiek lagunen lagunei eta azkenean taldea osatu. Alpeetara joateko, Mont Blanc igotzeko, zein bide? Goúter-etik? Ala, Cosmiques-etik? Ez, ez eta bai. Goúter-etik, Cosmiques-etik, Gonella-tik eta Durier-etik: lau bide Euskal Herriko emakumeentzat. Iparretik heldu dira tontorrera, ekialdetik, mendebaldetik eta hegotik. Lau bide eta lau haize.

Zailtasun tekniko eta iraupen desberdineko bideak izan dira laurak. Lehen *laumilakoa* egin behar izan duten bazuentzat, hautatutako bide horiek bazuten liburuetan esandakoak baino mami gehixeago...

Marimendi taldea osatu duten emakumeek ez zuten alde zuzen elkar ezagutzen; halere, enbor bereko adarrak izan dira denak: euskaldunak, berrogei urteak paseak, denek mendia maite... Gehienak, mendizale ohituak ibilaldi luzetan... baina, hemen, etxean, Euskal Herrian, Pirinioetan; ez Alpeetako izotzetan. Gutxi, gutxienak izan dira jada Alpeak ezagutzen zituztenak. Baina hori ez da oztopo izan, alderantziz baizik: deskubritzearen aukerak asko laguntzen baitu oinetako babaren mina leuntzen.

Elkarrekin ametsetan hasteko, altxor ederra zekarren bakoitzak: mendi esperientzia propioa eta orain arte egingabeari ekiteko sekulako gogo, erronka eta plazera uztartzeko nahia, mendi handietara joateko irrika.

Emakumez osatutako taldean joan dira, eta euskaraz bizi izan dute mendia goizetik gauera. Aurtur ekintza honetara animatu ez direnek, edo, animatuta, lana edo etxeko beharrik zirela-eta joan ezin izan direnek agian datorren urtean izango dute aukera.

■ MENDI ZURIA, BIZIPOZAREN URA

Talde berria da **Marimendi**. Proiektua garatu eta landu duten emakume guztiak baziren nor bere mendi-taldekoa. Nor bere herrikoa, bere koadrilakoa. Eta hala segitzen dute izaten. Baina ekintza jakin honek antolaketa berezia eskatzen zuen: kirola eta erreibindikazioa uztartu nahi zituen.

Lan-talde trinkoa eskatzen zuen horrek, lan-talde berezitu. Inola ere ez ohiko mendi-taldeak ordezkatzeko, baina bai haiek normalean bideratzen ez duten eskakizuna plazaratzeko bestekoa. Eta hori da **Marimendi**: emakume talde bat, mendia eta euskara lagun dituen. Bestelako mendi-taldeetan ere gustura aurkitzen dira *marimenditarrek*, baina noizean behin bildu egiten dira, helburu jakin batzuei buruz begira jarri eta horiek betetzen ahalegintzen dira.

Aurtengo ekintza Mont Blanc izan da. Erakutsi nahi zuten emakumeak (emakume *arruntak*, halakorik baldin bada) bere esku duela goi-mendia. Ez duela zertan atzera egin behar. Askotan hala egin behar izan du: familia dela, emakumeen beldurrak direla... *balioko al dut nik halako mendiak eskalatzeko?* Eta, jakina, neurrian, denek balio dugu.



■ *Paki eta
lgone
gailurrera
heltzen*

Mont Blanc izan da aurtengo izarra, aurtengo oporren *leit motiv* delakoa. Eta inor ez denez jaiotzetik trebea izotzetan eta harkaitzetan ibiltzeko, horretarako batere ohiturarik ez zuten emakumeek ikastaro batzuk egin dituzte hara aurretik. Prestaketa-lanak egin dituzte udaberrian, izotzetan eta harri artean ibiltzen ikasteko (kranpoi-, piolet- eta soka-teknikak batez ere).

Ondoren, laumilakoetarako prestakuntza burutu dute udan bertan. Aklimatazioa landu dute. Prestaketa-lanak egoki betetzeko, mendi-gidari profesionalen laguntza eduki dute. Alpeak denen esku egon litezke, eta hala daude. Mendiari ez zaio beldurrik eduki behar, baina errespetua zor zaio. Mendi-gidari profesionalak izan dituzte horretan lagun.

Planifikatuta zuten bezala, uztaileko Madalenetan, Mont Blanc mendiak musukatu ditu *marimenditarrak*. Den-danak igo dira haraino. Denak nekatu dira horretan. Leher-tu ere bai baten bat. Baina denak hurbildu dira tontorrean jarritako ikurriñaren ingurura. Malkoren bat galdu du han goian baten batek, irrintzia entzunda. Baita hemen ere, etxean, irratiz zuzenean erretransmititu baitzuten hogeit laguneren poza.

■ **ALDARRIAREN BEHARRA**

Bakar batzuk izango dira ekintza hau ulertu ez dutenak. Alegia, emakumeak arrandegiko kolan nahiago dituztenak. Baina oro har, gizarteak begi onez ikusi du iniziatiba. Izan ere, justiziazkoa baita emakumeak euren aisiaren kudeatzaile izatea: mendian dela, tenisean dela, kafetegian dela, literaturan dela.... Rol sozialek ez dute beti hori erraztu. Baina tamaina hartu diote emakumeek *ekintza positibo* honi.

Euskal Herriko hedabideek asko lagundu dituzte emakumeok. Irratiak, egunkariak eta telebistak behin baino gehiagotan eman dute mendi-aktibitate *berri* honen albis-tea. Eta hori bera ere bazen ekintzaren helburuetako bat, alegia: gizarteari esatea, modu publikoan, emakumea badela nor mendian ibiltzeko.

Salbuespenak salbuespen, azken hamarkadotan, begi onez ikusi du Euskal Herriko gizarteak emakumearen berdintasun- eta normaltasun- eskakizuna: emakumeak lanean bere lekua egin du, bere bidea ireki du politikan... Baina, aisiaren kudeaketan, urratsek herren egin dute bazueta, kale ere inoiz. Zaila da besteren aisia modu serioan hartzea. Baina gizarte moderno eta aurreratuetan, gero eta garrantzitsuagoa da hor ere berdintasunezko eta normaltasunezko bideak zabaltzea.

Esan bezala, hedabideek asko lagundu dute iniziatibaren sozializazio- eta gizarteratze-lan horretan. Esker oneko dira *marimenditarrak* denekin. Bai eta laguntzaile eta babesle izan diren erakundeekin ere. Dendariekin. Mendi klubekin... Etxekoan eta adiskideen bultzadarik gabe, gaitzago zatekeen dena.

■ **MENDITIK HARAGOKO BIZIPEN PERTSONALA**

Asko ikasi dute emakumeek mendian: izotzetan irrist ez egiten, soka-lagunen pausuan joaten, aseguratirik ibiltzearen garrantzia, planifikazioaren ezinbestekotasuna...

Emakumearen eta euskararen aldarriak eraman dituzte Europako gailurretara *marimenditarrek*. Eraman dutena asko izan da. Aldiz ekarri, ez dute gutxiago ekarri.

Ez gara punta-puntako kirolariak jakina; baina, kirolak punta-puntakoa behar al du izan beti? Bestela, ez al da kirola? Errekorrak hautsi nahi ez dituen taldeko baten hitzak dira. Kirolaren alderdi ludikoa ulertzen saiatu den batenak.

Dudarik gabe, goi-mendiarekin enamoratu den baten adierazpena da honako hau: *goi-mendia deskubritu dut, nolabaiteko beldurra zena, gozamen bihurtu da.*

Hara abiatu nintzenezan, paraje ederrak amesten nituen. Haiak begietan ekarri ditut; aldiz, han egindako lagunak, bihotzean

–zioen batek bueltan. Manikeismo merkean erori gabe, bidaia askotan eta askotan exotismo hutsa bilatzen dugun

garai bitxi hauetan, esperientzia handia da zer ikusi den kontatu ordez, noekin deskubritua izan den kontatzea.

Mendian trebatu ez eze, laguntasunean ere trebatu dira *marimenditarrak*. Adiskidetasunaren beroa gehitu diote garapen teknikoari.

■ ETA, AURRERANTZEAN ZER?


Hasteko eta behin, web orria egin dute: www.marimendi.org Hor aurki ditzake nahi duenak aurtengo ekitaldien berri, argazkiak, taldearen idearioa eta pentsamenak. Web orria da elkarren berri izateko lan-tresna, nola *marimendientzat* hala bisitarientzat.

Taldea sendotu eta zabaldu nahi dute. Gizarteari helarazi nahi diote mezua ozenago: emakumearen aisia beregainaren alde, euskararen alde. Eta hori guztia mendian.

Aurten Mont Blanc izan da bilgunea. Eta datorren urtean? Oraingoan, datorren urtekoa gorderik dago, eskailerapean, ardo ona bezala. □



■ Gailurraren poza



Fitxa teknikoa

1. Aurre-prestaketa

Tena Ibarra, 2006ko martxoaren 11-12
Vignemaleko mazizoa, 2006ko ekainaren 17-18
Urdulizko eskalada-eskola, 2006ko ekainaren 28-29

2. Aklimatazioa, Suitzako Saastal

Weissmies (4023), 2006ko uztailaren 17an
Lagginhorn (4010), 2006ko uztailaren 18an
Allalinhorn (4027), 2006ko uztailaren 19an
3. Lau bide Euskal Herriko emakumeentzat (uztailaren 20, 21 eta 22)
Miage-Bionnassay-Mont Blanc (AD), soka-talde bat
Gonella-Mont Blanc (PD+), soka-talde bi
Goûter-Mont Blanc (PD-), hiru soka-talde
Cosmiques-Mont Blanc (PD), soka-talde bi

4. Ardura tekniko eta profesionala

Mendiak eta Herriak mendi-gidari elkarteak (Garo, Gorri, Irazusta, Lasa, Leizaola, Ugarte, Uriarte, Zuza...)

Partaideak

Agire, Mertxe

Eibar (Club Deportivo Eibar)

Aramaio, Birtu

Ondarroa (Aurrera mendi taldea)

Arin, Marian

Zaratamo (Ganguren mendizale taldea)

Atxalandabaso, Marije

Gernika (Goizale mendi elkarteak)

Berridi, Usue

Pasai Donibane (Irungo mendizale elkarteak)

Bilbatua, Esther

Eibar (Club Deportivo Eibar)

Eriz, Igone

Aramaio (Orixol Aramaio mendi taldea)

Etzegoein, Pakita

Irun (Irungo mendizale elkarteak)

Garzirriain, Carmen

Iruña (Gaztaroa mendi taldea)

González Matauko, Ines

Gasteiz (Gasteiz mendi taldea)

Hernani, Ane

Bilbao (Zulu mendi elkarteak)

Mendikute, Mariaje

Iruña (Boscos mendi taldea)

Otxoa de Txintxetru, Miren

Bilbao (Santutxu mendizale taldea)

Uriarte, Esther

Oleta (Otxandioko Miru gain mendi taldea)

Vila, Lorea

Elgoibar (Morkaiko mendi taldea)

Zabala, Arantxa

Mendata (Gernikako Goizale mendi elkarteak)

Zubia, Arrate

Bilbao (Morkaiko mendi taldea)

Zubiaurre, Lourdes

Elgoibar (Morkaiko mendi taldea)

Zubizarreta, Gemma

Arretxabaleta (Murruxiko mendizale taldea)